


### 1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Gogo biziz, eta pertsonak zaindu eta babesteko ilusio handiz, HelpClothes aurkezten dizuegu. HelpClothes, bere gorputza autolesionatzen duten pertsoneri bideratutako laguntza jantziak dira. Arropa honekin pertsona autolesioei lagundu nahi diegu beraien gorputza mintzeko duten arazoarekin. Joera hori ekidin eta egiteari uzteaz gain, gure asmoa, gorputzean sortu daitezkeen zauri eta kalteak guztiz saihestea da. Mauka luzeko kamiseta, erresistentea izango da. Autolesio arazoak dituen pertsonak jarriko du, eta ez du minik hartuko.

Pertsonen osasun mentala axola zaigu eta horretan lan egitea da gure erronka. Egia esanda, gutxitan hitz egiten da askatasunez gai honi buruz jendartean eta oro har, badakigu ez dela egoera erraza, horregatik etorri gara beharra dutenei laguntzera. Egoera oso ilun ikusten baduzu ere, beti dago irteera bat, guk, zuk behar duzun laguntza hori eskaintzen dizugu arropa honen bidez.

Datu batzuk hartu ditugu arropa hau zein beharrezkoa den ohartzeko. Grafiko honetan ikusi daitezkeenez, 2020an 3941 pertsona hil ziren Espainian autolesioen ondorioz. Datu hau altuena izan da azken 15 urteetan. Baita beste taula honetan ikusi daiteke nola joan den handitzen autolesioen intzidentzia 2013tik 2016ra arte.



Baita, bi egunkarietako berri hartu ditugu ere, adierazten dutenak nola handitzen joan den gazteen arreta psikologikoa. Lehena, Diario de noticias de Álava-ko berriaren arabera, EAEn pandemiaren erruz, laguntza psikologikoaren eskariak %25 batean gora egin. Datu hauek pasadan urtekoetakoekin alderatuta asko handitu direla ikusi daiteke. Pandemiak, ikasleen nortasunaren garapenean atzerakuntza sortu du eta bere sintoma ohikoenak burua nahastuta izatea da.




## HELPCLOTHES

Beste berri bat hartu dugu, kasu honetan Naiz egunkaritik. Berri honetan pandemiaren eragina aztertzen du gazteen osasun mentalean; Koronabirusaren pandemiak % 50 handitu ditu ospitaleratutako nerabeen kantitatea osasun mentaleko arazoengatik, larrienak anorexia, joera suizidak eta antsietatea izanda.

Arrisku handiko egoera dago haurren eta gazteen osasun mentalerako, eta beharrezkoa da arreta psikologiko eta psikiatrikoa mantentzea.

Bi berri hauetan ikusi daitekeenez, egoera hau ez da berria, eta oso garrantzitsua da egoera horrekin amaitzea, bakoitzaren eta gizartearen onerako. Horren ildotik, guk gizarteari arropa hori eskaini behar geniola pentsatu genuen, ez baitago beste produkturik nork bere burua zauritzen duten pertsoneri laguntzeko. Horrek bereizten gaitu gainerako arropengandik, ez baita soilik arropa bat, baizik eta ekintza horiek egiteko joera duten pertsoneri laguntzeko aukera bat.



helpclothes

Zuri laguntzea gure lehenetana delako